

EUSKAL AEKO ESKOLA-JARDUERARI BURUZKO ESTATISTIKA, 2010/11 ikasturtea

## Matrikulazioek gora egin dute hiru lurraldeetan

### *Ikasle atzerritarren %50 hiru hiriburutan metatzen da*

2010/11 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean aritutako ikasle kopurua 404.612 izan zen, aurrekoan baino %2,5 gehiago, Eustaten datuen arabera. Haietatik 375.413 ikasle (%93) araubide orokorreko ikasketetan aritu ziren; 9.885 matrikula berri egin ziren, %2,1 gehiago.

Bizkaian (%2,7) hazi zen gehien matrikulazio-kopurua; Gipuzkoan %2,3 eta Araban %2,1.

### 1. taula-2010/11 ikasturtean matrikulatu diren ikasleak

	2010-2011 ikasturtea			(%) Matrikulatutako ikasleen urte arteko Δ		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
<b>GUZTIRA</b>	<b>404.612</b>	<b>231.148</b>	<b>173.464</b>	<b>2,5</b>	<b>3,2</b>	<b>1,6</b>
<b>Araubide orokorreko irakaskuntzak</b>	<b>375.413</b>	<b>203.436</b>	<b>171.977</b>	<b>2,1</b>	<b>2,5</b>	<b>1,7</b>
Haur-hezkuntza	94.818	49.363	45.455	2,2	3,1	1,2
Lehen hezkuntza	117.193	58.723	58.470	3,4	3,9	2,9
DBH	70.516	32.054	38.462	1,5	2,3	8,0
Batxilergoa	28.769	15.080	13.689	-0,7	-0,7	-0,7
Erdi mailako LH	11.468	6.970	4.498	3,6	5,8	0,5
Goi-mailako LH	17.401	9.209	8.192	5,0	6,1	3,7
Hezkuntza berezia	1.050	477	573	-1,8	-6,3	2,3
Hasierako lan-kualifikazio programak	4.519	2.346	2.173	-2,1	-6,0	2,5
Helduen Hezkuntza	29.679	29.214	465	0,1	-0,3	36,8
<b>Araubide Bereziko irakaskuntzak</b>	<b>29.199</b>	<b>27.712</b>	<b>1.487</b>	<b>7,5</b>	<b>8,5</b>	<b>-8,2</b>
Hizkuntzak	25.211	25.211	-	8,9	8,9	-
Musika	2.857	1.815	1.042	-3,0	0,8	-9,0
Arte plastikoak eta diseinua	414	179	235	-13,0	-4,8	-18,4
Kirola	468	258	210	48,1	98,5	12,9
Dantza	101	101	-	9,8	9,8	-
Goi Mailako Diseinua	148	148	-	-18,7	-18,7	-

**Iturria: EUSTAT. Euakal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2010-11**

Zentro publikoan edo pribatuan aritzeko orduan, araubide orokorrekoetan ikasle-banaketa orekatua izan zen maila guztietan, %50 inguru; salbuespenak Lan Hezkuntza, maila ertainekoa (%60 publikoetan) eta HH (%98).

Araubide Bereziko Irakaskuntzetan aniztasun handiagoa izan zen ikasi beharrekoen arabera; izan ere, prestakuntza-programa hauetan zentro-kopurua txikiagoa da, eta eskaintzak asko baldintzatzen du aukeraketa. Hizkuntza, Dantza eta Goi mailako diseinua zentro publikoetan ikasten dira, bestelako eskaintzarik ez dago-eta. Musikan, Kirol irakaskuntzan eta Arte Plastikoetan, publikoetan %64, %55 eta %43 aritu ziren.

### **Lan Hezkuntzan gora jarraitu zuen matrikulazio-kopuruak; %4,4 hazi zen batez beste.**

Araubide Orokorrekoetan, Lan Hezkuntzan haziz jarraitu matrikulazio-kopuruak –lehenengo urtean baino gutxiago- bai ertainean (%3,6), bai goi-mailan (%5); guztira 11.468 eta 17.401 ikasle. Maila ertaineko LHn Gipuzkoan %6ko hazkundea dago lehenengo ikasturtearen aldean; beste bi lurraldeetan %2,4. Goi-mailakoan, gehiago hazi zen eskaria Bizkaian (%6,4) eta Araban (%5,4), Gipuzkoan (%2,9) baino.

Haur hezkuntzan eta Lehen mailan ditugu matrikulaziorik gehien, 94.818 eta 117.193; araubide orokorreko matrikulen %56. Badira hamar urte maila hauetan, ikasturte guztietan, hazkundea izan dugula, neurri ezberdinez. Aurten, %2,2 eta %3,4.

Araubide orokorreko gainerakoetan, ikasle kopuruen aldaketak ez dira hain esanahitsuak izan aurreko ikasturtearen alden.

Araubide bereziko irakaskuntzan, hizkuntzetan nabarmena da matrikulazio-hazkundea, 25.211 guztira, eta guztien %86. 2010/11 ikasturtean 2.053 ikasle gehiago erregistratu ziren (%9). Kirol ikasketetan %48ko hazkundea dago, oso nabarmena; halere, kopurua, guztira, ez da oso handia, 468 ikasle.

### **Batxilergoko ikasleen %53, emakumeak; Lan Hezkuntzan, %60, gizonak**

Araubide orokorrean gizon eta emakumeak %51-%49 banatzen dira. Ehunekoak ez dira aldatzen (gizonak %52, emakumeak %48) Haur hezkuntzan, Lehen Hezkuntza eta DBHn, derrigorrezkoetan beraz. Hurrengo etapan, berriz, neskak gehiago dira Batxilergoan eta mutilak gehiago Lan Hezkuntzan. Batxilergoan, matrikulen %53, neskenak; %47, mutilenak. Lan Hezkuntzan segitzen dute mutilek (%60) gehiago izaten; nabarmenagoa ertainean (62-38) goi mailan (59-41) baino. Bai Hezkuntza Berezian (62-38), bai Hasierako Lanbide Prestakuntzako programetan (72-28) gizonak gehiago dira. HHn %60, emakumeak.


### **Ikasle atzerritarren %50 hiru hiriburutan metatzen da**

34.332 atzerritar matrikulatu ziren, %8,4. Haietatik 31.562 araubide orokorrean eta 2.770 berezian.

Bizkaian erregistratu ziren atzerritar gehienak (%51); Gipuzkoan %27 eta Araban %22. Haien %50 hiriburuetan metatzen da: Donostian %9, Bilbon %22, Gasteizen 19%.

Atzerritarren %42 derrigorrezkoetan (Lehen Maila eta DBH) ari da; %23 HHn eta %13 Haur hezkuntzan. Derrigorrezkoa ez den hezkuntzan atzerritarrak bakan batzuk baino ez dira.

## 1. grafikoa.- Ikasle atzerritarrek mailaka (%)



**Iturria: EUSTAT. Euakal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2010-11**

Atzerritarren %45 Amerikatik etorri dira, %40 Hegoamerikatik; %28 Afrikatik; %18 Europatik eta %8 Asiatik.

### Haur hezkuntzan hamarretik zazpi D ereduan ari da


2010/11 ikasturtean, A ereduan (euskara irakasgai) %17 aritu zen; B ereduan %22 eta D ereduan (dena euskaraz), %60.

Mailaka, Haur Hezkuntzan dugu D eredua indartsuen, %73; Bn %23 ari dira eta An %4. Derrigorrezko Hezkuntzan, oro har, Dk segitzen du nagusi izaten, %64 Lehen Hezkuntzan eta %56 DBHn. Beste ereduei dagokienez, Lehen hezkuntzan eta DBHn Bn %28 ari da; A ereduan %7 aurrenekoan eta %15 bigarreanean.

Hezkuntza Berezian: An %64; Dn %23 eta Bn %13.

Lan Hezkuntzan urtetik urtera hazten da euskaraz ari direnen kopurua, baina oraindik A da nagusi, %74. Batxilergoan An %44 ari da eta %54 Dn.

**2. grafikoa.- Ikasleen banaketa hizkuntza ereduaren eta mailen arabera (%)**



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2010-11

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)

Harremanetan jartzeko pertsona: M<sup>º</sup> José Triguero Triguero

Tel.: +34-945-01 75 46 Faxe: +34-945-01 75 01.

*Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gaineko prentsa-ohar gehiago.*

*Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gaineko datu-bankua.*